

ARANTZALIAK

Donostiko kai-mutu'ereko sota'rain gañean, bi emakume sare-saiari adabakiyak jartzen ari ziran. Byak emakume galantak, langi'le pu'ukatuak, euskal-itxasoko alaba maratsak, ta eguzkiyari ere arpegi emateko kementsuenak.

O'fela izan oi dira arantzale-emazteak, ta batez ere, nik goguan daka'rdan garayan, bazuten emakume oye'k gizonen alako inda'fen lakari bete.

Etziyoten lanari txolarterik ematen: ausi ta josi; aska ta lotu; txibista egin, ta berori indartu; adabakitako zatia atzeratu ta zuldun zati beriya bereganatu... Noiztik bein ordea, abesten zuten, bañan lanen ariyik utzi gabe.

Kañabelakin dabilizan oye'k,
badute naiko ixkira,
exkalua ta zoriya pranko...
begira, maite, begira!...
opil goxuak jango dituzte,
befiz etortzen badira.

Orduantxe, abesti oni ekiten ziyotela, eldu nintzan ni, ta aldamenean ja'fi. Bañan ezin luzaroan egon. Iga'riko ninduten, ta igari ezkeru, iñondoko arda' ta arandiyak neretzat izango ziran noski.

Eutsi ta eutsi, pitin bat iraun nuen, ta eman zidaten asti, beste eresi bat entzuteko.

Aingira more, kolayo zaka'í,
araingo'ri ta lamote...
gure sarera, a'fai maitiak,
beitarik gabe, atozte!...
bere zabalez gure sareak
atxi litzaken ainbeste.

Antxen egon nai, ta ezin, uxiatuko ninduten-da. Edozeñek daki, uxiatze ontan, zenbat indar duten kayeko emakumeak.

Ixil-ixilik, legórean jaso-ta zegon potin baten branka-atzian eskutatu nintzan, ta emakume ayen erautsiyan belaríyak tente-tente.

Ez dizut, irakurle, zein ziran emakume oyek esan, ta gai ontaz ez dizut gauza pitiña baño esango. Bat Erutridix zan; Antxobelaren emaztea; bestea Xexili, Izomotxena. Bérogei urtetik gorako emakumeak ziran: biyak arpegi-beltzak, biyak sudur-luxe-xamarák, biyak ile eder oparotsuak, biyak... donostiafak. Bazekiten Indaloxioren abesti auxe:

Ile beltz eder dizdizariya
oparo dezu buruan,
konparatzeko baliyo dunik
sedarik ez da munduan.

Etzuten begirik jasotzen beren arazotik. Ura zan egiazko langileen ardura! Igarotzen ziran oso aldamenetik beste emakume asko, sare-antolatzaleari agur egiñik, Dañan ez det uste iñori erantzuten ziyotenik. Ain teinkaka zeukaten beren laneko txikota! Zeñek eriatu? Ta ala bear ere; urango egunean beren senarak sare ayek bear zituzten, ta senarak aitzakirik jari etzitzayeten, *ari ziran*, *ari ziran (ez trukean)* ari otzaren gañean, ipur kankarak ximeldu-arte.

Lana iya bukaturik zeukatela, berebiziko autariyua jo zuten.

—I ofela izan-da, ¿zeñi eman nai diyon eua?

—Zer egin bear zionat?

—¿Zer? Leyotik bera bota! Ikasi dizanala, etxeko *erespetuari* ondo begirutzen. ¿Zerba? Gizonak ditunala-ta, barkatu? Ez, arayo-etxe!...

—Bazekiñat bai, ori zergatik esaten didanan... Irea izan-baunan!

—Zer nere ta zazpi gibel-arai!... Neriari ere etzionat utziko. Ez orixe! Neriak eta iriak ondo ibili bear ditent!... Gu emen sare *konpontzen*, ta gizon petralak etxeko sokak autsi-ta, *trabes?*... Ori etzion ondo.

—Bañan, noizian bein, neska...

—Zer noizian bein?... Erotu al aiz? Emakume danak gizon ajolagabeari zaunk egin bear zion, zakurak gibel-puzkari egiten zionan bezela... edo salabarduan sartu, ta antxe, txiki-txiki egin.

—Abolori aundiya ago neska... Uste al den, oren erex arapatzen denala nere gizona?

—Zāla dana eréxtu zan.

—Nola ordia, nola? Txitxaria aboan sartu-ta?

—Esan diñat len ere: Leyotik bera bota-ta.

Asaratu ziran bi emakume ayek, ta alkar jotzeko zoriyan ere jarí ziran. Ardała ta karāxiya zerabilten artean, abesti onetzaz gogoratu nintzan:

Asafe dabiltz, alkarí koska,
Izurdia ta masopa...
Oyen artean egoterikan
Maite, ez dizut nik opa;
Atoz onera, gaiztoa da-ta
Oyen letagin zorótza.

Noiz bait ere ixildu, ta luzaroan itzik egin gabe egon ziran. Biyak beren lanari jaráitzen ziyoten; batak ordea askarāgo besteak baño, ta orétxegatik lenago bukatu zuen sare-adabaketa.

Altxa zan au; zutik jafi; bere joste-tresnak jaso, ta puxka xar batzuek otafean jafi-ta, bazijoan. Besteak geldí arazo zuen esanik:

—Bai al ua?

—Bai, banian.

—Mokua luzatu-ta, antxeta bezela...

—Neska, emango ñat!...

—Lagundu zadan.

—Ez den *merezi*.

—Bazekiñat ori... Ez ai, neska, aserātu... Edořek ondo dakin, zenbat efiyeta ematen zizkiyonadan nere senarari, bañan alpefik... Ori guziya jakin-da, beti neri ekin biar!...

—Kolayo bat zuzentzeko kemenik ez denalako. Arayari on den gatza botatzia, bañan kolayua zintzilik ladi bear den, leyoko atalaxian, texa texa!...

Egun edera zetoren. Eguzkiyak etzuen orduarteko bidetan lanbrorik idoro, ta galanta ta bete-betea zetoren. Itxasoa ere barebare zegon, ta Gaztelu-mutuřetik ikusten zan osin zabalak etzuen, ez azal ta ez erai, aunditxo ta puztualdi apartsurik non ageri. Getari, Motriko ta Lekeitiyo sudur aurean ikusten ziran, ta andik onuzko bitartean txalupa-treñneruak bazebiltzan.

Gazteluko begizaleak, ontzi bat besteak baño uręgo ikusten

genuen, ta laxter igeĀi geniyon kai aldera zetoĀela: txardiĀaz lepo-leporaĀo bete, panel-gaĀean ase, branka gaĀeraĀo aĀavez josi-ta.

Aguro iritxi zan bi-muturĀtara, ta andik Ārez-asko kai baĀenen sartu. GoizerĀi zan, ta edozeĀek daki orduko arantzuak garesti jo oi duela, ta lenengo eltzen dan ontziyak erosleen dirurik pikoĀe-nak atxitzen dituela.

Bi emakume zeuden kai-gaĀean, beste an zeudenetatik poza-tiyen: Āretrudix ta Xexili. Egon bear pozik, berena baizan alako aĀartzaz okitu-ta zetofĀen txalupa.

— Guriak ditun!...

IzugarĀiko ixkamĀla, berialako batean, antxen sortu zan. Emakume bakoitzak lenbizi izan nai zuen, ta jakiĀa: bulto eta bultz, alkaĀen gainka Leuden, estu ta erantzi, panelpeko txardiĀak bezela.

UĀeratu zan kai mutuĀera treĀnerua, ta panelak altxa zituztenean, masiyako txardiĀ edera pilan, Āruz, ugari ta zuri zuri azaldu zan.

Txalupa mutilak kakoa bota zuen kai-gaĀera, ta txalupa zuzen ta tajuz gelditu zan.

— Ai zan, Xexili, ekaĀi al den txintxaĀiya?

— Bai, ementxe diĀat.

— Jo zan jo, eder oĀek!... Jo ta jo! gaur guria diĀagu-ta.

— Ta oĀarak ekaĀi al ditun?

— Bai or zeuden... I, mukizu, ala! ala! sokak eta oĀarak!

— Zenbat jaĀiko diĀagu?

— Zenbat? Aldan gorena!...

— Ori den aĀai edeĀa!

— Bai edeĀa bezela!... Jo zan jo!...

— Lertu arte, neska.

— EtoĀi, etoĀi erosleak!... Auxe dezute, au aĀaya!... OĀelakorik ez dezute *santa sekulan* ikusi... I, moĀona, noa ua?... Ez gero neri zaputzik egin, e?... aitu?... I, mototz luze, ator; orainguan aindoin-daĀak txardinez aseko ditun... I, toloxa, papoxa, arpegi polit... *atorĀai!*... Nik emango diĀat merke... I, Ikastegietako beltzarana ator!... TxardiĀa talo gaĀean jaĀi-ta, e?... Takatx!

Okela, kayean zeuden erosle guziyak inguratu ziran, ta asi zan salketa. Xexili ta Āretrudixek moko-mokoraĀoko dirutzak atera zituzten, kaĀaxi, oju, arguriyo ta tartekako buĀukaz egin zuten salketa artatik.

Egun edeĀa izan zuten egun ura. Ondo baskaldu.. ta gabean, esku-esku senaĀak artu-ta, *kaĀera* joan ziran, ta gaberdiko amabiyen dangetakuan etxean doi-doi sartu.

— Aizan, Xexili, ez aldidan eriyetan orain eman biar?... Nere senafa kafelariya dala-ta, amaika entzun nizkiñan atzo!... Kolayua bezela, leyo-atalaxian, zintzilik jafi bear niñala... Ta kafera noizian bein joaten denalako!...

— Aizan, Erétrudix, ez *nan* txitxareik nastutu... emaztea senarekin ondo zion non nai... bai *kafian*, bai goizeko iruretako ilargi edefaren txortenan... aitu al den?...

Bañan Xexilik abesti batez erantzun zion:

Patar goritik edan ezker
 badabil *binbilin bolon*;
 eguzki galdan ibili oi da
 ofela *Mari Panpalon*...
 Añantza onak zerbait biar du . . .
 Jaunak, ariyo ta gabon!...

INTZAGARAI